

# Itsaso Pérez Ormazabal

**E** maila • 3 aipamena



Kaixo!

Ni Itsaso Pérez Ormazabal nauzue, 11 urteko neska beasaindarra. Murumendi Ikastetxean ikasten dut, 5. mailan hain zuzen ere. Nire zaletasunen artean irakurtzea, antzeztea eta lagunekin denbora pasatzea daude. Nik idatzitako ipuina gustukoa izatea espero dut, ilusio handiarekin idatzitakoa baita. Aipamen hau nire familiari, aiton-amonei, irakasleei eta ondoan ditudan lagunei esakintzen diet. Gozatu!

## AURRERA GAUZAK ALDATZERA

Goiz hartan Amaiak iratzargailua entzun zuenean itzaltzeko keinua egin zuen, eskua gaueko mahaitxora luzatuz, baina gero gogoratu zen zergatik jarri zuen iratzargailua larunbat batean. Lagunekin mendira joateko plana egin zuelako! Hori ahaztea ere! Orduan ohetik altxatu eta korrika gosaltzera joan zen.

Hamar minutu barru berriro ere logelan zegoen, armairua irekita arropa aukeratzen. Jantzitakoan ilea orraztu, mendiko botak jantzi eta herriko plazara abiatu zen. Bidean bere lagun Ibairen etxe ingurutik igarotzen zenez, txirrina jo zion eta elkarrekin joan ziren plazara. Han, beste guztiak itxaroten zeuden eta denborarik galdu gabe abiatu ziren.

Bidea oso atsegina zen, apurtxo bat luzea izan arren azkar pasa zitzaien, abesten eta hitz egiten joan zirelako bide guztian.

Tontorrera iristear zeudenean merendero bat topatu eta bertan geldialdi bat egin zuten azken txanparako indarrak hartzeko. Ur pixka bat edan ondoren, ezkutaketan jolasten hasi ziren. Amaia eta Ibai korrika ezkutaleku bat bilatzen hasi ziren eta bat-batean kobazulo bat aurkitu zuten, ezkutaleku aparta izango zela eta barrura sartu ziren.

Barrura sartu zirenean Ibaik harri dizdiratsu bat ikusi zuen lurrean, makurtu eta hartu zuenean konturatu zen zerbait idatzita zeukala. Amaiak ere entzun zezan ozen irakurri zuen idatziak zioena:

- ATZERA, AURRERA, GAUZAK ALDATZERA, GAUZAK IKUSTERA.

Hori esan eta dena biraka hasi zen, biraka eta biraka eta halako batean gelditu zenean, biak lurrean etzanda zeuden, elkarri begira, izu aurpegiarekin.

## PROSA

Gertatutakoarekin harrিতuta zeudenez kanpora irtetea erabaki zuten, eta kanpoan are harrituago geratu ziren, beste leku batean zeudela zirudien! Dena plastikoz beteta zegoen, eta eguraldia oso goibela zen.

Gertatutakoa oso arraroa zenez merenderora itzuli ziren beste lagunekin elkartzeko, baina han ez zuten lagunen arrastorik aurkitu eta motxilak ere desagertu egin ziren, motxilen orde z freskagarri lata batzuk eta patata poltsa huts batzuk zeuden.

Orduan pertsona bat ikusi zuten urrutira. Pixka bat gerturatu zirenean ohartu ziren ez zela pertsona bat, ez zela gizakia, robota baizik! Izututa zeudenez merenderora itzultzea erabaki zuten.

Bi lagunak ikaratuta zeuden ez zekitelako zer gertatu zen, baina orduan Amaiari, Ibaik kobazuloan irakurritakoa etorri zitzaion gogora: ATZERA, AURRERA, GAUZAK ALDATZERA, GAUZAK IKUSTERA. Orduan konturatu zen denboran zehar bidaiatu zutela.

Ibairi kontatu zionean ezin zuen sinistu entzuten ari zena. Baina azkenean onartu zuen ez zegoela beste azalpenik. Hala ere, herrira jaitea proposatu zion egia zela ziurtatzeko, eta Amaiari ideia ona iruditu zitzaionez jaisten hasi ziren.

Jaitsierako bidea ez zen igoerakoa bezain atsegina izan ez zegoelako zuhaitzik eta zuhaitz gabe ez zegoelako itzalik, gainera plastikoren bat zapaltzen bazuten irristatu eta lurrera erortzen ziren. Herria hasten zen lekura iritsi zirenean ohartu ziren herria hiri ikaragarri batean bihurtua zegoela;arrotza, ezezaguna egin zitzaien.

Bi lagunak geroz eta izutuago zeuden, baina erabaki zuten hobe izango zela hirira sartzea.

Hiria oso handia zen eta etxe altuz beteta zegoen, zuhaitz bat bera gabe. Orduan zerbaitek bi lagunak arreta bereganatu zuen, baserri txiki bat zen. Sartzea ideia ona izango zela petsatu zuten, agian adineko gizon edo emakumeren bat biziko zelako bertan.

Txirrinik ez zuenez atean zintzilik zuen aldaba jo zuten eta berehala entzun zuten emakume baten ahotsa sartzeko gonbidatuz. Haurrak sartu zirenean adineko emakumea ikusi zuten eserleku batean liburu bat irakurtzen, sartu zirela konturatzean hurrei begiratu eta irrifar bero bat eskainiz galdetu zien:

- Egunon, esaidazue, zer egiten dute susto aurpegidun gazte hauek hemen?
- Oso istorio luzea da, baina nahi baduzu kontatuko dizugu. Hala ere, ez dakit sinestuko diguzun. -erantzun zion Amaiak.
- Noski kontatzea nahi dudala .- jarraitu zuen emakumeak.

Orduan Amaiak eta Ibaik gertatutakoa kontatu zioten. Emakumeari oso arraroa egin zitzaion kontaturiko dena, baina umeen begiradetan zegoen zintzotasuna ikusi zuenean egia zela konturatu zen.

## PROSA

- Lasai, sinesten zaituztet -erantzun zien isiltasun luze baten ondoren -gainera ez da horrelako zerbait entzuten dudan lehen aldia- gehitu zuen.
- Eskerrak! - esan zuen Ibaik
- Baina ba al dakizu nola itzuli gaitezkeen gure garaira? -gehitu zuen bestea.
- Bai, baina joan aurretik gauza garrantzitsu bat esatea gustatuko litzaidake.
- Bota! -esan zuten bi lagunak batera.
- Lehenik eta behin ez utzi herri polit hura hiri izugarrian bihurtzen, zaila izango da baina saiatuz gero ziur nago lortuko duzuela -haurrak buruarekin baietz egiten ikusi zituenean, jarraitu egin zuen.
- Oso garrantzitsua da planeta zaintzea. Guk jada ezin dugu ezer aldatu, beranduegi da, zuek ordea aukerak dituzue.
- Seguru nago lortuko dugula.
- Ados, orain etxera itzuli nahiko duzue ezta?
- Noski! - ohiukatu zuten.
- Ba horretarako denboran zehar bidaiatu duzuen lekura itzuli beharko zarete.
- Eta zer egingo dugu han?
- Denboran zehar bidaiatu aurretik ikutu al duzue zerbait ala?
- Bai -erantzun zuten.
- Ba gauza hori berriro ikutu eta pentsatu zuen garaiko edozein objektutan.
- Eskerrik asko denagatik! Baina orain joan beharra daukagu, gure lagunak kezkatuta egongo dira.

Hau esandakoan, emakumeak altxatu eta ateraino lagundu zien bi lagunei.

Kalera ateratakoan korrika mendi aldera abiatu ziren. Arrapalada batean igo ondoren kobazuloan sartu, harri dizdiratsua hartu eta beraien garaiko objektu batean pentsatzen hasi ziren eta segituan dena biraka hasi zen berriz ere. Gelditutakoan lur hotz hartan etzanda zeuden biak. Zorabiatuta zeuden, baina hala ere zutitu eta kanpora irten ziren ea egin zutenak funtzionatu ote zuen ikustera, eta hala zen! Ez zegoen plastikorik lurrian eta lehen zegoen eguraldi aparta itzuli zen. Orduan bi lagunak oso pozik zeudenez saltoka eta ohiuka hasi ziren. Handik minutu gutxira beste lagunak kobazulora hurbildu ziren, oso kezkatuta zeuden denbora asko etorkizunean egon zirelako. Amaia eta Ibai ikusi zituztenean beraiek ere saltoka eta ohiuka hasi ziren pozaren pozez.

Gero Amaiak eta Ibaik gertatutakoa kontatu zien, ez zuten denek sinestu, baina hain pozik zeuden aurkitu zituztelako berdin izan zitzaizela.

Bi lagunak ez zuten emakumeak esandakoa ahaztu, egia esan hitz horiek ez zituzten inoiz ahaztuko, beti eramango zituzten bihotzean eta ahal zuten guztia egingo zuten herria etorkizuneko hiri horretan ez zedin bihurtu.